



TOKIA: Eusko Jaurlaritzako Lakua II eraikineko 6. aretoa	ADINEKOEN KONTSEILU SEKTORIALAREN bilerako akta	EGUNA: 2018.06.15
		ORDUA: 10:00 h
Etorritako AKSko kideak		
Eusko Jaurlaritza		
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	Beatriz Artolazabal Lide Amilibia Emilio Sola Idoia Ebro (idazkaritza)	
OSASUN SAILA	Guillermo Viñegra	
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA	Carmen López	
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	Imanol Agote	
Foru Aldundiak		
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Txaro Rodrigo	
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Miren Saratxaga	
EUDEL	Dorleta Goiburua	
Adineko Pertsonen Erakundeak		
EUSKOFEDERPEN	Txema Odriozola	
LAU DORREAK	Antonio González	
AGIJUPEN	Jose Agustín Arrieta	
NAGUSILAN	Jose Luis Elosua	
HELDUAK ADI!	Antonio Campos	
FAE	Koldo Aulestia	
BIZITZEN FUNDAZIOA	Izko Cardenal	
LARES EUSKADI	Jose Ignacio del Pozo	
Elkargo Ofizialak		
GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALA	Olatz Etxabe	
Erakunde gonbidatua		
3D SOCIAL MOVEMENT	Beatriz Gázquez Nerea Goikoetxea	
Ezin etorria adierazi duten AKSko kideak		
HEZKUNTZA SAILA	Lucía Torrealday	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Sergio Murillo	
EUDEL BIZKAIA	Josu Bergara	
Etorri ez diren AKSko kideak		

EMAKUNDE	María Teresa Santamaría
EUDEL GIPIZKOA	Onintza Lasa
NAGUSIAK	Roberto Martinez
PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	Gloria Martín
SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA	Begoña Pablos

LANDUTAKO GAIAK

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu **Beatriz Artolazabalek** ongiatorria eman, bertaratu diren guztiei etorri izana eskertu, eta lan-saioari ekin zaio 10:10 direla.

Beatriz Artolazabalek aurkezpenak egitea proposatu du; ondoren, eta **Zahartzaroko Abusuaren eta Tratu Txarraren gaineko Kontzientzia hartzeko Mundu Eguna** dela-eta irakurri du *Adinekoenganako tratu txarrei uko egiteko eta tratu ona sustatzeko adierazpena*. (erantsita).

Adierazpena irakurri ondoren, gai-zerrendako lehenengo puntuari heldu zaio.

1. Aurreko bileraren (2017ko ekainak 7) akta onestea.

Kontrakorik ezean, onartutzat jo da aurreko bileraren akta.

2. EAEko adinekoentzako egoitza-zentroen gaineko dekretuari buruzko informazioa.

Emilio Solak aipatu duenez, EAEko adinekoentzako egoitza-zentroen gaineko dekretuaz irizpen bat emango da bi hilabeteko epean.

Dekretu horrek hobetu egingo du orain indarrean dagoen 1998koa. Kanpoan utzi dira tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak, beste dekretu batean joango baitira (zirriborroa eginda dago eta lantzen jarraitu behar da). Dekretu berriko hobekuntzen artean daude honako hauek:

- Hobekuntzak dakartza langileen ratioetan
- Oso-oso bakan erabiliko dira lokailuak

- Pertsona da arreta-ereduaren ardatza
- Eta unitate psikogeriatrikoak planteatzen dira.

Hots, aurrerapen handia da aurreko dekretuaren aldean, eguneratze hau behar baitzuen.

Jose Ignacio del Pozoren ustez ahalegin handia izango da egoitzentzat, eta galdetu du zertan den eguneko egoitzen dekretua, 2000koa zaharkituta baitago.

Emilio Solak erantzun du arautzen ari direla, arautu gabekoa lehenetsiz eta, hala, eguneko egoitzen dekretua pixka bat baztertuta geratu dela.

Egoitzek baldintza berrietara egokitzeko egin beharko duten ahaleginari dagokionez, lehendik lanean dauden egoitzek aski izango omen dute maila funtzionaleko eta langileen ratioko baldintzak betetzea, eta ez baldintza materialak.

Beatriz Artolazabalek gehitu duenez, legealdiko eta urteko egutegia lehenesteko orduan, kontuan eduki behar izan dute Gizarte Zerbitzuen Legearen eta Zorroko Dekretuaren garapena, arautzeke dauden eta dekretuz arautu behar ziren baliabideak daude, eta horiek lehenetsi dira. Beste zenbait araututa daude eta eguneratu beharra daukate, baina lehentasunak ezarri behar izan dituzte.

3. AGENDA NAGUSI, Gobernantzarako Euskal Estrategiari buruzko informazioa. Pertsona nagusientzako parte-hartze publiko-sozialaren eredu bat.

Lide Amilibiak eta **Beatriz Gázquezek** egin dute aurkezpena.

Akta honetan osorik transkribatzeak luze joko lukeenez, honi erantsita doa aurkezpena.

Aurkezpen hau zehatzago azalduko omen da abuztuaren 29ko saioan.

Saioan zehar banatu da, halaber, parte-hartzeko fluxuaren ereduaren fotokopia eta pilotajerako proposatutako gaiak biltzeko fitxa, erakunde bakoitzak egokitzat jotzen dituenak iradoki ditzan.

Lide Amilibiaren eta Beatriz Gázquezen aurkezpenaren ostean, Beatriz Artolazabalek hitza hartu eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailaren hiru proiektu berritzaile nabarmendu ditu:

- Nagusi Gobernantza
- Euskadi Lagunkoia
- Bherria

Dioenez, sarritan, berrikuntza aipatzen denean, teknologiarekin eta industriarekin bakarrik lotzen da. Nolanahi ere, gizartearen esparruan ere badaude balioa eman eta hobetzen jarraitu behar diren proiektu oso interesgarriak.

Jarraian, **Beatriz Artolazabalek** ekarpenak eta gogoetak egiteko txanda bati ekin dio.

Imanol Agotek dio berria dela Kontseiluan, eta jakin nahiko luke eurek garatzen duten proiekturen bat nola egokitu litekeen Kontseiluaren ekimenetan. Ildo horretan aurkeztu du Liburutegi digitala; haren bitartez doan eskura daitezke liburuak, bai eta liburu egokituak ere, filmak, etab.; belaunaldien arteko espazioak sor daitezke, eztabaidaguneak, irakurle-elkarteak... garapen pertsonalaren bidean etab. Liburutegi-guneak ere sor litezke.

Ez omen dute baliabide pertsonalik, eta berrikuntza beharko lukete, eta boluntario-egiturak ezarri.

Ekimen mota horiek Kontseilu honen estrategiekin bat datozen planteatzen du.

Emilio Solak erantzun duenez, boluntarioei dagokionez eta Boluntariotzaren Euskal Estrategiarekin loturik, zenbait ekintzak zerikusia dute beste sail, instituzio eta erakunde batzuekin, eta haiekin harremanetan jar liteke,

Imanolek aipatutako aukerak jorratzeko.

Txema Odriozolak eskerrak eman dizkie Lideri eta Beatrizi beren aurkezpenengatik, eta bere ustez ez da egongo Kontseilu sektorialarekin arauketarik oraingoaren desberdina denik. Jakin nahiko luke zein izango den Kontseilu honen osaera, zer eskumen izango dituen...

Lide Amilibiak erantzun dionez, Kontseiluak garrantzi handia du Agenda Nagusi proiektuan. Ez dira Kontseilua erreformatzea pentsatzen ari, potentzial handia duelakoan eta aukera bat baita Kontseiluarentzat. Prozesu honen ondorioz birplanteatu beharra dagoela ikusten badute, hala egingo da.

Txema Odriozolaren esanetan, adinekoen parte-hartzea benetakoa izan dadin ari da borrokan.

Beste gai bat planteatu du: aurkeztutako eredia nola egingo den bateragarria adinekoen lurralde-kontseiluekin.

Lide Amilibiak dioenez ezinbestekoak dira, eta, horregatik, elkarri eskutik helduta joan beharko lukete. Haien ardura duten aldundiekin hitz egingo da.

Gogorarazi du, halaber, prozesu hau gobernu-proiektu bat dela eta, beraz, gobernuarena dela lidergoa.

Txema Odriozola beldur da Adinekoen Estatu Kontseiluko berdina gertatuko ote den: ordezkariak dute baina ez diete entzuten eta ez dute erabakitzen.

Koldo Aulestiak adierazi du beste jarrera bat dagoela hemen. Gure ingurunean eta kulturean, sustatu egiten omen dira honelako ekimenak.

Miren Saratxagak zehaztu duenez, Arabako adinekoek hartzen dute parte, bai Gizarte Zerbitzuen lurralde-kontseiluan bai adinekoen lurralde-kontseiluan. Gaur egun, badaude egiturak.

Txema Odriozola eta **Antonio González** ez daude ados.

Beatriz Artolazabalek gogorarazi du lurraldeen gaia dela eta ez dagokiola Kontseilu honi.

Txaro Rodrigoren esanetan, Kontseiluak Gipuzkoan ez zuenez eskualde guztien ordezkaritza orekaturik, parte hartzeko prozesu bat ireki zen; laster egingo da lehenengo saioa, eta bere ustez baliagarria izan daiteke Kontseilu honi eta Agenda Nagusi proiektuari laguntzeko.

Jose Luis Elosuak dioenez, lurralde-kontseiluek orain arte bezala funtzionatu behar dute, zenbait gai lurralde-kontseiluari aurkezten zaizkio arazoak konpontzeko gaitasuna eta eskumena duelako, eta gobernuaren eskumen diren gaiak Kontseilu honetara ekartzen dira.

Antonio Camposen kezka da informazioaren gizartean bizi garela, informazio gehiegi daukagula, eta informazio hori guztia laburtzen duen norbait beharko litzatekeela.

Gainera, interesgarria iruditzen zaio parte hartu nahi duen jendearentzako prestakuntza, baina agian garrantzitsuagoa litzateke jendeak parte hartzeko prestakuntza ematea.

Emilio Solak erantzun du aurreikusita dagoela Boluntariotzaren Kontseiluaren estrategian, eta hainbat adibide eman ditu: hirugarren sektoreko arduradunentzako prestakuntza, hedabideekiko topaketak, boluntariotza sustatzeko kanpaina...

Gainera, Boluntariotzaren Kontseiluan dago Secot erakundea, eta hark lan-proposamen bat egingo du aurretiko erretiroaren adinean dauden langileekin, erretiroaren egoeraz eta hura hartutakoan boluntariotzan hasteaz.

Boluntariotzari buruzko txostenari dagokionez, Emilio Solak positibotzat jo du boluntario izan ez eta izateko prest leudekeenak edo etorkizunean izango direla uste dutenak % 11 izatetik % 22ra pasatzea; hau da, 5 urtean ehuneko bikoiztea. Hala, itxaropena izatekoa da.

Koldo Aulestiak zehaztu du erakunde guztien helburu komuna lehenetsi beharko litzatekeela, batzuetan helburu partikularren gaineratik, gizarteak parte har dezan eta solidarioa izan dadin.

Guillermo Viñegrak gai pare bat aipatu nahi ditu. Lehenik, parte hartzeaz ari gara hizketan eta batzuetan utopia da: asko hitz egin eta gutxi praktikatzen da. Aipatu duenez, departamentuko kupula dago gaurko saioan, arduradun nagusia

bertan dela, lidergo lanak hartuta. Haren parte-hartzearen seinale argia da.

Eta, bigarrenik, Kontseilu honetako kide guztiei jotzen diguten enbido bat da, eta konpromisoa hartu behar dugu, proposatu diguten ereduaren erronka oso interesgarria baita.

Izko Cardenalek proposatu diguten parte hartzeko ereduaren hainbat alderdi aipatu nahi ditu, bere ustez oso interesgarriak. Bata, lurralde-kontseiluen dinamikak Euskadiko dinamika orokorrarekin uztartzea.

Bestea, erronka handi bat: antolatu gabe dauden pertsonak parte har har dezaten lortzea. Adineko gehienak ez daude antolatuta eta ez dute parte hartzen. Ikusi beharko da zergatik ez duten parte hartzen pertsona horiek edo zergatik parte hartzen duten gero eta gutxiago.

Azkenik, garrantzitsua omen da oraindik adinekoak ez diren baina izango diren pertsonak eta haien ekarpenak ere biltzea, betiere orekari eutsiz eta adinekoei protagonismoa emanda.

Beatriz Artolazabalen ustez, heldu egin behar zaio aukera honi, aurreratzen jarraitzeko. Gure saila aitzindaria da berrikuntza sozialean eta parte-hartzean, prozesua martxan jarri dugu eta elkarrekin egingo dugu aurrera.

Txema Odriozolak azpimarratu egin du adinekoen lurralde-kontseiluekiko konexioa.

Jose Agustín Arrietak “espíritu” hitza azpimarratu nahi du. Asko gustatu zaio aurkezpenaren tonua, parte hartzeko fluxuari eta jarrerari dagokionez. Hirugarren adinekoekiko harrera, errespetua eta balorazioa nabarmendu nahi izan ditu, eta proposatutako ereduaren Auzolan espiritua aipatu du, oso gurea baina ikuspegi moderno batekin.

Balioei ere eman zaien garrantzia azpimarratu nahi du. Bide onetik goazela uste du.

Esandako guztiarengatik eskerrak eman ondoren, Beatriz Artolazabalek txanda eman dio Emilio Solari, eguneko laugarren gaia aurkez dezan.

4. Euskadi Lagunkoiako berriak.

Emilio Solak Euskadi Lagunkoia ekimena aurkeztu du. 54 udalerrri daude izena emanda eta munduko sarerik handiena da, biztanlearekiko proportzioan.

Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien 1. Saria sortuko da, ekainaren 30a arte entregatu daitezke jardunbide egokien fitxak, eta sari hori emateko jardunaldi bat antolatuko da irailaren 14an Gasteizen.

Era berean, azarorako eratuko dira Euskadi Lagunkoia proiektuko lurralde-batzordeak eta lidergo-batzorde bat Euskadi mailan.

Azkenik, OMEk adinkeria borrokatzeko bederatzi jardueretako bat izendatu omen du Ondare proiektua: Euskadiko ondare immateriala zaintzeko bideo-sail bat da (lanbideak, ohiturak...). 9 bideo daude grabatuta.

Emiliok bere aurkezpena amaitu eta beste gairik ezean, eguneko azken puntuari heldu dio **Beatriz Artolazabalek**:

5. Eskaerak eta galderak.

Beatriz Artolazabalek Kontseiluari jakinarazi dionez, urriaren 2tik aurrera, gizarte-erakundeek prozesu telematikoak erabili beharko dituzte administrazio elektronikoaren esparruan. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere burua eskaini du horretan laguntzeko, eta erakundeen kontaktuak eskatu dituzte, administrazioarekiko harreman-sistema berri honetaz informatzeko, bai eta azalpenak eta informazio-/prestakuntza-saioak emateko ere. Adibidez, Nagusiarekin egindako topaketa arrakastatsua aipatu du.

Idoia Ebrok azaldu duenez, bertaratutako guztiei eman zaie pendrive bat, aurreko saioko dokumentazio erantsi guztiarekin.

Gainera, Kontseiluko kideen berariazko onespina eskatu beharra aipatu du “Kide anitzeko organoen ebaluazioa eta hobekuntza” proiekturako (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzak darama aurrera). Horretarako, Kontseilura etorri izanaren kontrol-orriari erantsi zaio zutabe bat gehiago, bertaratu direnek beren onspina sina dezaten. Sailburuordetza horren Gutuna ere banatu da, proiektua laburki azaltzen duena.

Azkenik, Lau Dorreak erakundearen 40. urtemuga dela eta, haren boligrafo



oroigarri bat banatu zaie bertaratuei.

Antonio Camposek “Helduak Adi!” erakundeak antolatzen duen udako ikastaroa gogorarazi du. Beste urteetako moduan, parte hartzeari buruzkoa izango da. Interes handia sortzen du: ikusi besterik ez dago 140 pertsona daudela matrikulatuta.

Beste galde-eskerik ezean, etorri direnei eskerrak emanez, **Beatriz Artolazabalek** amaitutzat eman du bilera, eguerdiko 12:05 direla.

Lide Amilibia
Gizarte Politiketako sailburuordea

Idoia Ebro
Adinekoen Kontseilu Sektorialeko
idazkaritza